

Aste egunak euskaraz eta beste zenbait hizkuntzatan (1556)¹

Days of the Week in Basque and Other Languages (1556)

PATRI URKIZU

UNED

Laburpena: Artikulu honetan, Bordeleko Guyenne Ikastetxeko Elie Vinet irakasleak 1556an editatutako testu bat komentatzen da, asteko egunen euskarazko izenei buruzkoa, eta izen horietarako proposatutako etimologiak eztabaidatzen dira. Hasiera batean, dirudienez, euskal astea, judu-kristauen eraginaren aurretik, hiru egunekoa zen, eta gainerako terminoak *ortzi* eta *ilargi* hitzekin lotuta daude.

Gako hitzak: Lexikografia. Aste egunak euskaraz.

Abstract: This article comments on a text edited in 1556 by Professor Elie Vinet of the Guyenne College in Bordeaux, referring to the various names of the days of the week in Basque. The proposed etymologies for these names are discussed. At first, apparently, the Basque week, before the Judeo-Christian influence, was three days and the rest of the terms are related to *ortzi* «firmament» and *ilargi* «moon», literally «dead light».

Keys: Lexicography. Days of the week in Basque.

Elie Vinet, Elias Vinetus bezala ere ezaguna (Saint-Médard, Charente, 1509 – Bordele, 1587), Errenazimentuko humanista, filologo, matematiko, historiagile eta arkeologo frantsesa dugu, berrogeita hamar liburu inguru idatzi eta argitaratu zituen, eta Bordeleko Collège de Guyenne ospetsuaren zuzendari

¹ Patri Urkizuk bizian argitaratu gabeko artikulua. Aldizkariaren zuzendaritzatik eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Patriren seme Urtzi Urkizu Adriani, aitaren omenezko ale berezi honetan argitaratzeko baimena emateagatik.

izan zena, hala nola Coimbrako Unibertsitateko fundatzaileetarikoa Portugalen. Idazle greko eta latinoen edizio eta komentariogilea, bereziki Ausonioren edizio famatuarena. Halaberki Saintes, Angulema eta Bordele hirietako historien egilea dugu, erromatar monumentuen grabatu eta ilustrazioez hornitua. Era berean ikasleentzat lan zientifikoak itzuli zituen.

1547an Portugaleko João II.a erregeak André de Gouveia irakaslea deitu zuen Coimbrako irakaskintzak eratzera Bordelekoen ereduaren arabera, eta Vinetekin joan zen hau bertara. Gouveiak sorterrian gelditzea erabaki zuen, baina Vinet 1549an Bordelera itzuli zen. Matematiketako katedradun zen eta klaseetarako gaiari buruzko liburu batzuk plazaratu zituen. Laster Parisera igo zen 1551ko Ausonioren edizioa gainbegiratzeko. 1556an Juan Gélida, Gouveia ordezkatu zuen Guyenneko Kolejioko zuzendaria, hil baitzen, Bordeleko Parlamentuko juratuek Vinet aukeratu zuten zuzendari, baina Frantziako errege zen Henri II.ak Nicolas Hérigaray izendatu zuen. Vinetek etsipenez utzi zuen Kolejioa eta Saintonge, Angoimoise eta Bordeleko historiak idazteari ekin zion.

Hérigarayk, antza denez euskal etorkikoa zenak, kargua uztea erabaki zuen 1562an eta juratuek berriro Vinet hautatu zuten zuzendari. Bertako administrazioa eramane zuen, beraz, baina irakasle gisara ere jardun zuen, pedagogia berrituz, *buru ongi eratuentzat* metodoak irakatsiz eta diziiplina gizatiarragoa ezarriz. Idazle klasiko latinoen argitalpenekin jarraitu zuen, 1570ean administrazioa utziz erabat Ausonioren ediziora mugatu zen, azken bertsioa 1580an plazaratuz.

Aipatu ez dudanez eta argitaratu zuen liburuen artean badu bat titulu honekin:

Discours non plus melancoliques que divers, de choses mesmement qui appartiennent a notre France: & a la fin La maniere de bien & iustement entoucher les Lucs & Guiterres. A Poitiers, De l'imprimerie d'Enguilbert de Marnef. 1556. Avec privilege du Roy.



Iturria: www.gallica.bnf.fr

Bertan bederatzigarren orrialdean bederatzi hizkuntza eta herri ezberdinetako aste egunen izenekin eratutako taula bat eskaintzen digu. Alegia, antzinako juduen, kristau erromatarren, portugesen, kastellanoen, frantsesen, alemanen, bretoien eta euskaldunen izenak ematen zaizkigu:

Les Iuis les nom- moient jadis en ceste forte, en leur langage,	Les Romains Chrétiens jadis,	Les Portugais aujourd'hui,	Les Castil- lans aujour- d'hui,	Les Gaulois & François	Italiens,	Alemands,	Bretons,	Feuil. s. Basques,
Prima Sabbati, Secunda Sabbati, Tertia Sabbati, Quarta Sabbati, Quinta Sabbati, Sexta Sabbati, Sabbatum.	Dominica dies, Secunda Feria, Tertia Feria, Quarta Feria, Quinta Feria, Sexta Feria, Sabbatum.	Domingo, Secunda Feira, Terça Feira, Quarta Feira, Quinta Feira, Sexta Feira, Sábado.	Domingo, Lunes, Martes, Miercoles, Jueves, Viernes, Sábado.	Dimanche, Lundi, Mardi, Mercredi, Jeudi, Vendredi, Samedi.	Domenica, Lunedì, Martedì, Mercoledì, Giovedì, Venerdì, Sabato.	Sondach, Maendach, Dingisdach, Goedisdach, Dönerisdach, Ffridach, Satterfdach.	Dei Suul, Dei luun, Dei meurs, Dei mergher, Dei hiout, Dei guener, Dei adorn.	Igánde, Astelehéna, Asteártea, Asteálquena, Orfeguná, Orfilárea, Larúmbata.

Kontsideratuz euskaraz inprimategian emandako aste egunen zerrenda ageri den lehen aldia dela, hala uste dut, bederen, plazaratzea egoki iruditu zait. Hona hemen, bada, transkripzioa:

Igánde

Astelehéna

Asteártea

Asteálquena [asteazkena]

Orfeguná [ortzeguna]

Orfilárea [ortzilarea]

Larúmbata

Vinet saiatzzen da argitzen hizkuntzetako hitz bakoitzaren etorkia eta etimologia, esanahia ematen, batzuetan argi eta garbi esan arren ez dakiela nondik datorkeen, eta hain zuzen euskal hitzetara iristean honakoxea dio:

Quant est des noms des Basques lesquels Basques font une partie de ceus que les anciens Geographes appellent Vascones es monts qui divisent la Gaule de l'Espagne, je croi bien, qu'ils pourroient signifier quelque chose, & me semblent estre la pluspart compousés : mais certes quelque exposition qu'on veillie donner des trois premiers, je n'i puis rien voir, qui me contente (12. or.).

Alegia, pentsatzen duela zerbait esan nahiko dutela, hitz konposatuak iruditzen zaizkiola, baina ez diola antzik ematen ere. Koldo Mitxelena ahalegindu zen *Munibe* aldizkarian (1971) plazaratu «Egunak eta egun-izenak» deitu artikulua gogoangarri batean eta geroago *Palabras y textos* liburuan bilduan (EHU 1987: 269-282) argitzen hauek, non oin oharretan ematen dituen gonbaraketak eta kideak hizkuntza ugarikoak diren.

Adibidez, *igante* / *igande* hitzak *igan*-ekin zerikusirik balu, dio, ez ote litzateke kristau hitza? Euskarazko mendebaldean *domequea* ageri baita

(Landucci), eta rusoz darabilten *vsokresén'e* hitza aipatzen du eta grekoz *kuriakè: he:méra*. Latinez, *Dies dominica*.

Jakina da humanista italiarrak, hala nola, Lucio Marineo Siculo (1460-1563) siziliarra, Andrea Navagero (1483-1529) veneziarra, eta Nicolao Landuchio luccatarra izan zirela lehenetarikoak Euskal Herriatik igarotzean honen hizkuntza berezitasunak jasotzen. Hala azken honek osatu zuen espainola, frantsesa, italiera eta euskarazko hiztegia. Gaztelaniari eta euskarari dagokion zatia Manuel Agudek eta Koldo Mitxelenak argitaratu zuten titulu honen pean, *Dictionarium linguae Cantabricae* (1562) (ASJU 1958). Hemen ageri zaizkigun aste egunen gaztelaniazko izenak honela daude itzuliak: *domequea*, *ylena*, *martičena*, *eguastena*, *eguauna*, eta *çapatua*. Ostiralaren, alegia, gaztelaniazko *viernes*-aren ordainik ez duelarik ematen.



Iturria: BNE (Madrileko Liburutegi Nazionalea, MS n° 8431)

Aurkeztu dugun Vineten taula, beraz, sei urte lehenago jaso eta askoz lehenago argitaratua dugu. Etimologiei dagokienez, Esteban Garibai historialari ospetsu mondragoetarrak (1533-1599) badu eskuizkribu bat, gaur egun Pariseko Sainte Geneviève-ko liburutegian dagoena (MS 3527, ff. 62-77), non errefrau zenbait eta hilabeteen izenez aparte ematen dizkigun «los de los días de la semana en ella», neronek aspalditxo argitaratua («Garibairen eskuzkiribu galdu

bat (1592)», *Mundaiz*, 1989, 33-63). Hemen haxe idatzi zuen gaztelaniazko Viernes hitzari buruz:

Viernes. *Ostiralea*, por *Asteralea*, que parece que se deriva de *Aste olea*, que significa día de la semana para la ferrería, llamada en esta lengua *olea*, de que ay muy gran abundancia en toda esta tierra. Otros le nombran *bariicua*, que quiere dezir día de ayuno, derivado de *barua*, que es ayuno.

Badirudi ez dabilela zuzen etimologilari bezala Garibai, zeren eta *osteguna*, *ostirala* eta hauen aurreko aldaerak *ortzeguna*, *ortzilarea*, *ortzirala*... hitzek harreman eta zerikusteko gehiago dute *ortze*, *ortzi*, *urtzi* «*cielo, firmamento*» esanahiarekin, Agudek dioenez («Los nombres de los días de la semana», ASJU, 1968, 33-49), latinez deitu izan ziren *dies nefasti* haiekin, eta Jovis eta Venus jaingo-jainkosekin.

Halaberki, gorago aipatu dugun Mitxelenaren artikuluan mendebaldeko *barikua* hitzarentzat honako bilakaera proposatzen du: **(a)baribakoeun > *bari(b)akoun > *bariaku > bariku*. Alegia, latinezko *dies sine cena*, afari gabeko eguna.

Hala bada, azpimarratzen duenez Mitxelenak, aste-egun izenak zertxobait itxuraldatu dira inguruko hizkuntzen eraginez. Sartaldeko *domekea*, *ylena* eta *marticena*, Landucciok jasoak 1562an, gaztelaniazko *domingo*, *lunes* eta *martes* hitzen egokipen zuzenak direnak. Kidekotasun hori sakonkiago aztertu beharko litzateke. Noski, *ylena*, hitzari *ilargi*-arekin antzekotasunik ez baitzaio falta.

Bestalde *Igánde* (1556) hitza, eta honen zubererazko aldaera *igante*, badirudi *aste*, *urte*, *mende* bezala eratua dela, lehen partea *igo / igan* «subir» aditz era dela eta bigarrena den *-te / -de* denbora atzizkiarekin osatua. Alemanez *Sondach* eta breizieraz *Dei Soul* bezala jasoak Vinetek, garbi dago *eguzki*-arekin zerikustekorik badutela.

Manuel Agudek «Los nombres de los días de la semana en vasco» artikuluan (ASJU, 1968, 33-48) honakoa dio *igande* hitzaz:

Aun cuando efectivamente *igande* indicase el «plenilunio», o sea, la fiesta del mes (extendida según Estrabón por el Norte de la Península) habría que explicar su limitación o reducción a la fiesta semanal, por tanto repetida cuatro veces en el mes. Además, es de suponer por el «plenilunio» continuara teniendo vigencia e importancia. ¿Cómo se le denominaría después?

Astelehena, *asteartea*, *asteazkena* asteko lehen hiru egunek pentsatzera eramaten gaituzte, antzina asteak hiru egunekoak zirela soilik. Eta *Igande*a eta *Larunbat*-arekin (hau *laur*-ekin lotuta) bostekoa? Noiz pasatu zen bada astea zazpi egunekoa izatera? Biblian ageri denez zazpi egunetan Jainkoak kreatu zituen zeruak eta lurak, eta eragin judeo-kristauaren bitartez iraganen zen, antza denez, hiru egunetik zazpira. Zenbatgarren mendean, ordea? Balirudike euskalkien emaitzak aztertuz mendebaldetik sartu zela Goi Erdi Aroan.

Julien Vinsonek, bestetik, euskal hiztegiak mintzo delarik aipatu *igandea* «jour du soleil» bezala itzultzen du, eta *eguberri* «jour nouveau» urte hasierarekin lotzen du eta honakoa dio ere («Études sur le vocabulaire basque», *Revue de Linguistique et philologie comparée*, Paris, 1867, 41, 81-96).

J'ai dit (p. 228, note) que l'année était probablement lunaire et que, pour rétablir l'équilibre des saisons, on intercalait sans doute de temps en temps un treizième mois. Cette hypothèse est confirmée par l'examen des noms des mois basques. « Septembre » en effet porte, entre autres, les noms de *buruila* et de *iraila*. *Buruila*, c'est « la lune » ou « le mois de tête, de bout, de fin, le mois terminal », et *Iraila* « le mois qui dépasse, le mois en excès », car *ira* se rattache à des radicaux « passer, dépasser, durer » et figure déjà dans le nom du vendredi, *ortziralea* « ce qui vient après (le jour du) tonnerre ». Il est par conséquent vraisemblable que l'année basque commençait à l'équinoxe d'automne et que le dernier mois de l'année précédente, qui correspondait à peu près à notre septembre, s'appelait *buruila* quand il était le douzième et *iraila* quand il était le treizième complémentaire.

Ortzilare, *ortzirale* hitzen nondikakoa eta etimologia zein izan daitezkeen etorkia jakitearren jo dut Joseba A. Lakarrak eta bere lantalde eta laguntzaileak argitaratu *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200) (Euskaltzaindia 2019) lan monumentalera, eta topatzen dut *eguzki* hitzarentzat 1090eko data (*senior Fortum Lopez de Guzquiza*), *egun* hitzarentzat 1393ko data (*Ochoa de Egunmendi*), —ez ote agian Egurmendi?—, *larunbat* hitzarentzat 1496koa, *ilargi* hitzarentzat 1530ekoa, *ortzegun* hitzarentzat 1597a, *ortzilare* hitzarentzat 1617a, *ortzirale* hitzarentzat 1621a, eta beste. Hala hitz zenbaiten zerrenda luze eta kronologikoa eman ondoren honaxekoa dio aurreraxeago ORTZIRALE (*ortzilare* 1617...) sarrera pean:

Zaharrena *-rale* forma dela onartuz (cf., halere, lehen lekukotasuna), aukera dago **ortz(egun)* *iragale* moduko zerbaitetan pentsatzeko, esanahiz «ostegunaren ondoko egun» edo («le lendemain du tonnerre» itzultzen du Vinsonek (1924:267)—. Aukera honetan, sekundarioak lirateke -l bukaerako formak...(123. or.)

Baina aurkeztu ditugun daten arabera onar al daiteke *-rale* dela lehen lekukotasuna? Zein litzateke hitzaren bigarren osagaiaren erroa: *ilargi* ala *ira(gan)*? Ez ote daiteke proposatu *irale/ilare* delako hitz konposatuaren bigarren partea *ilargi* hitzarekin lotzea, eta beraz, honako bilakabidea: **ortzilargi* > *ortzilare* > *ortzirale* > *ostirale* kontsideratu? Hala balitz, eta logikoak dirudite proposatu aldaketa fonetikoak, Vinsonen proposamena *ortzirale* hitzarentzat baliagarri ote? Ez litzateke proposatu behar agian askoz ere iradokitzaileagoak diren *ortz(i)* + *ilargi* sorreran, *bortz* eta *iragale* ordez *quinta feira* portugesez esaten duten arren?

Michel Morvan-ek dioskunez *Les origines linguistiques du Basque* (1996: 261) *Kalevala* poema epikoan *Ilmarinen* delako artisauak Unibertsoa eta *Sanpo* deitu bere oinarria hiru egunetan sortu zuen, *Trimaine* delakoa, *semaine*

hitzaren ordezt sortzen duelarik. Lanerako egunak, beraz, hiru lehenak lirateke, eta jairako besteak.

Horrela bada osaturik geneukake aste egunen alor semantikoaren esanahia eta Vinetek deus ezin ikus zezakeen hitzetan, *je n'i puis rien voir*, argi pittin bat nabarmen dezakegula esan dezakegu.

13

dredi Vvridach ou ffridach sera a dire *Veneris dies*,
& leur Ieudi Donnerſdach jour de tonnoirre, par ce
mot entendant Iupiter, lequel croioient les anciens
paiens fere la hault au ciel & en l'air les tonnoirres,
comme ſi diziés jour de tonnant : & leur Lundi
Maendach, *Luna dies*, car Maen en leur langage ſi-
gnifie la Lune. Mais leur Mardi Dingſdach, & leur
Mercredi Goedſdach, je ne ſçay, ſ'il y a Alemant, qui
puiſſe aujourdui dire dont ils ſont compoſés. Que
ſils ſont prins des noms des autres Planetes, com-
me il eſt vrai ſemblable, tels noms ſe ſont perdus
en ce païs là, auſi bien que l'idolâtrie de leur Mer-
cure Thentates & de leur Thuiſco, deſpuis que le
nom & religion de IESVS CHRIST y ont eſté
receus. Toutefois je vous aduertis qu'on n'uſe de
tels noms par toute l'Alemagne, mais on en chan-
ge les vns entierement, les autres en quelques let-
tres ſeulement. Quant eſt des noms des Baſques
leſquels Baſques ſont vne partie de ceus que les
anciens Geographies appellent *Uaſcones* es monts
qui diuiſent la Gaule de l'Eſpagne ; je croi bien,
qu'ils pourroient ſignifier quelque choſe, & me
ſemblent eſtre la pluſpart compoſés : mais certes
quelque expoſition qu'on veillhe donner des trois
premiers, je n'i puis rien voir, qui me contente.

b ij

